

## IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

<b>Titulua:</b> ERIZAINZAKO GRADUA	<b>Mota:</b> Erizaintzako Zientziak <b>Eskolen Kronograma:</b> 2. lauhilekoa <b>Hizkuntza:</b> Euskara/Gaztelania <b>ECTS kredituak:</b> 6 <b>Kurtsoa:</b> 2. Maila
<b>Ikasgaia:</b> Komunitateko erizaintza	
<b>Kodea:</b> 26451	
<b>Ikasgaiaren deskribapena eta testuingurua:</b> Lehen mailako osasun-arreta: erizaintzako kontsulta, etxez etxeko arreta eta esku-hartze komunitarioa. Pertsonen, familien eta taldeen zainketa-beharrak. Osasuna sustatzera, prebentziora, sendaketara eta errehabilitaziora bideratutako zainketak.	
<b>Sartzeko eskakizunak/gomendioak:</b> Ez dago	

IRAKASLEAK	Tel.	Helbide elektronikoa
<b>Ikasgaiaren arduraduna:</b> Asier Léniz Rodríguez	945 2188084	asier_leniz001@ehu.eus
<b>Euskarazko lerroko irakaslea</b> Asier Léniz Rodríguez	945 218084	asier_leniz001@ehu.eus

## GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Lehen mailako osasunaren oinarriak eta banakoek, familiek eta komunitateek erizaintzako zainketa integrala izan dezaten garatu beharreko jarduerak deskribatzea.
- G2. Komunitatearen osasun-diagnostikoa egiteko beharrezko elementuak identifikatzea.
- G3. Osasunaren sustapenaren eta osasunerako hezkuntzaren kontzeptuak ulertzea, banakoen, taldearen edo komunitatearen osasuna ikuspegi parte-hartzaitetik sustatzeko esku-hartzeak diseinatzeko.

## ZEHARKAKO GAITASUNA

- ZG. **Talde-lana:** talde-lanaren gaitasunaren barruan, norberaren jarrera eta helburu komunak lortzeko jarduerak aurrera eramateko beste pertsonekin elkarlanean aritzeko gaitasuna daude, horretarako informazioa partekatuz, erantzukizunak hartuz, sortzen diren zailtasunei erantzuna emanaz eta taldeko hobekuntzaren eta garapenaren alde ginez.

## IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- IE1. Erizaintzako profesionalek Lehen Mailako Arretako talde batean garatu behar dituzten funtzioak eta jarduerak identifikatzen ditu.
- IE2. Lehen Mailako Arretako erizainen balorazio osoa egiteko beharrezkoak diren datu garrantzitsuak identifikatzen ditu, kontsultan zein etxean, osasun-egoera desberdinak kontuan hartuta.
- IE3. Lehen Mailako Arretako balorazio-eskalen hautaketa eta erabilera argudiatzen du.
- IE4. Lehen Mailako Arretan erizainen arreta ona bermatzen duten NANDA-NIC-NOC taxonomien araberako judizioak, helburuak eta esku-hartzeak argudiatzen ditu.
- IE5. Familiaren balorazioa egiten du, pertsonaren eta familiaren beharrak asetzeko teoria eta balorazio-tresna egokiak erabiliz.
- IE6. Oinarrizko osasun-eremuko aktiboak mapatzen ditu, komunitatea eta komunitatearen osasunaren faktore erabakigarriak arakatuz eta komunitatearen beharrak eta baliabideak identifikatuz.
- IE7. Aldaketak egitearen konplexutasuna kontuan hartuta, hezkuntza-prozesu egoki eta eraginkorrak ezartzeko gaitasuna du.
- IE8. Osasun-hezkuntzako programen diseinua aztertzen du, ikasgelan landutako printzipio pedagogikoak eta lan akademikoak egiteko baldintzak errespetatuz.
- IE9. Jarduerak elkarlanean eta aktiboki egiteko gaitasuna du; besteen ideiak eta ekarpenak errespetatzen ditu helburu komunak lortzeko.

## EDUKIAK

### I. UNITATEA: ARRETA KOMUNITARIOA LEHEN MAILAKO OSASUN-ARRETAN

- 1.1 Lehen Mailako Osasun Arreta
- 1.2 Komunitateko erizaintza

Tailerra: Erizaintzaren prozedurak Lehen Mailako Arretan

### II. UNITATEA: KOMUNITATEA AZTERTZEA

- 2.1 Osasunaren faktore erabakigarriak
- 2.2 Komunitatearen kontzeptua
- 2.3 Osasun-diagnostikoa
- 2.4 Osasun-politikak eta -planak

Mintegia: Aktiboak mapatzea oinarrizko osasun-eremuan

### III. UNITATEA: OSASUNAREN SUSTAPENA ETA OSASUNERAKO HEZIKETA

- 3.1 Osasuna sustatzea eta osasun-arazoak prebenitzea: PAPak
- 3.2 Teoriak eta ereduak
- 3.3 Jarduketa-esparruak
- 3.4 Osasunerako hezkuntza
- 3.5 Komunitateko esku-hartzea

Mintegia:

- Banakako esku-hartze hezigarriaren analisisa eta defentsa, eta talde-proposamena
- Osasuna sustatzeko eta prebentzioko jarduerak lantzeko kasuen ebazpena

### IV. UNITATEA: KOMUNITATEKO ERIZAINZAKO ARRETA

- 4.1 Erizaintzako arreta banakoaren, familiaren eta komunitatearen garapenean eta hazkunderan
- 4.2 Komunitateko erizaintzaren jarduketa-esparruak
- 4.3 Familiari arreta
- 4.4 Kronikotasun-plana eta erizaintzako rol berriak
- 4.5 Erregistro-sistemak Lehen Mailako Arretan

Mintegia: Lehen Mailako Arretako prozesu kroniko ohikoenen kasuak ebaztea

GAI UNITATEA	IRAKASLEAK	KLASE MAGISTRALEN ORDUAK	MINTEGI-ORDUAK	TAILER-ORDUAK	IKASGELAKO PRAKTIKAK
1	Asier Léniz Rodríguez	8	0	0	0
2		8	2	0	0
3	Asier Léniz Rodríguez	20	5	0	0
	Asier Léniz Rodríguez	0	2	0	6
4	Asier Léniz Rodríguez	12	0	2	6
GUZTIRA		<b>48</b>	<b>9</b>	<b>2</b>	<b>12</b>

### METODOLOGIA

Partaidetzako metodologia erabiliko da, honakoa hauen bidez:

- **Eskola magistralak:** irakasleak ikasleen parte-hartzea sustatuko du, jorratutako gaiari buruzko ikus-entzunezko aurkezpen eta bideoekin.
- **Mintegiak / Ikasgelako praktikak.** Aplikazio praktikoaren bidez ezagutzak sakontzera bideratuak: problemak ebaztea, erabakiak hartzea, eztabaidatzea eta talde-laneko zeharkako kompetentzia garatzea.
- **Tailerra.** Lehen Mailako Arretako kontsultetan egiten diren erizaintzako prozedurak landuko dira.

LAN PRESENTZIALA (71 ORDU)			
Klase magistrala	Mintegia	Laborategiko praktikak / Tailerra	Ikasgelako praktikak
48	9	2	12

LAN EZ-PRESENTZIALA (79 ORDU)			GUZTIRA	
Gidatutako lana	Bakarkako lana	Talde-lana	ECTS	
6	53	20	6	150

## EBALUAZIO-SISTEMAK

### OHIKO DEIALDIA: EBALUAZIO JARRAITUKO SISTEMA

Kalifikatzeko tresnak eta ehunekoak:

- GARATZEKO IDATZIZKO PROBA (AZTERKETA) %50
- BAKARKAKO LANA %10
- PRAKTIKAK EGITEA %5
- TALDEKO LANA %35

Ebaluazio jarraituaren sistemak eskakizun hauek bete beharko ditu:

- GARATZEKO IDATZIZKO PROBA (AZTERKETA) %50

**Proba idatziak** bi zati edukiko ditu:

1. Lehen Mailako Arretako kasu ohikoenak ebaztea eta test. Balioa: %30. Honek, aldi berean, 2 atal izango ditu, bat kasu kliniko batekin eta beste bat test motako galderekin eta/edo galdera laburrekin. Atal bakoitzean 5eko emaitza beharko da gainditzeko. Testeko erantzun oker bakoitzak galderaren balioaren % 25 deskontatuko du.
2. Idatzizko proba galdera laburrekin edota OHren zatiaren testa. Balioa: %15. Testeko erantzun oker bakoitzak galderaren balioaren %25 deskontatuko du.

Azterketa gainditzeko, nahitaezkoa da 10 puntutik 5 edo gehiago ateratzea zati bakoitzean.

- BAKARKAKO LANA %10

Alderantzizko gelako metodologia, galdera laburrak edota testa dituen idatzizko proba barne. Justifikatutako arrazoirik gabe jarduerara joaten ez diren ikasleei ez zaie gehituko azken kalifikazioaren proportzioa.

- PRAKTIKAK EGITEA (LMA-KO ERIZAINZAKO PROZEDURAK) %5

Nahitaezkoa da tailer bietara joatea. Ebaluazio-jarduera hori gainditzeko, nahitaezkoa da tailerra 10etik 4eko edo hortik gorako notarekin gainditzea. Beheragoko nota batek 0 balioarekin batezbestekoa egingo du.

- TALDEKO LANA % 35

Ebaluazioan, taldeko lan bi daude:

- Aktiboak mapatzea oinarrizko osasun-eremuan Lan honetan, guztizko notaren %10arekin baloratuko da taldeko lanaren zeharkako gaitasuna. Nahitaezkoa da jardueraren %100era joatea. Taldeko lanaren zeharkako gaitasuna gainditzeko, nahitaezkoa da 10 puntutik 5 edo gehiago ateratzea. *Ikasleak ez badu ebaluazio jarraituko sisteman egiten, ez du ikasgaia gaindituko, eta ez du aparteko deialdian egiteko aukerarik izango.*
- Esku-hartze hezigarriaren grabazioa-analisisa-aurkezpena. Lan honetan, esku-hartze hezigarri bat egiteko eta aztertze gaitasuna ebaluatuko da. Balioa: %25.

Ebaluazio jarraituan jarduerak egiteko eta puntua dezaketen lanak entregatzeko datak ikasgaiaren kronograman zehaztuko dira. Aipatutako kronograma ikasleen eskura egongo da eGelan, ikasturtearen hasieratik.

Gaitasunen ebaluazioa jarduera hauen bidez egiten da:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1 eta G3	IE2, IE3, IE4, IE5 eta IE8	Klase magistralak Kasuak ebaztea	Idatzizko azterkera: - Galdera laburrak / test - Kasuak ebaztea	%50 (%15 OH, %35 KE)
G1	IE1	Alderantzizko gela	Test	%10
G1	IE1	Tailerra	LMAko prozedurak / test	%5
G3	IE7 eta IE9	Esku-hartze hezigarria	Esku-hartze hezigarriaren grabazioa-analisisa-aurkezpena	%25
ZG eta G2	IE6 eta IE9	Aktiboak mapatzea eta osasun diagnostikoa	Taldeko lana	%10

Ikasgai honetako gaitasunak gainditzeko, ebaluazio-jarduera guztiak modu independentean gainditu behar dira, 10etik 5 edo goragoko notarekin. Azken kalifikazioa lortzeko, ebaluazio-jarduera guztiak batu behar dira.

### **Etengabeko ebaluazioaren modalitatean kontuan hartu beharreko gogoetak**

Idatzizko azterketaren bi zatietako batean 5eko nota lortzen ez bada, bakarrik zati horren azterketa egingo da ezohiko deialdian.

Mintegi, tailer edo derrigorrezko eskola bakar baten justifikatutako absentzia (\*) berreskuratu ahal izango da. Justifikatu gabeko absentziak azken ebaluazio-sistemara pasatzea ekarriko dute.

Mintegi, tailer edo derrigorrezko eskola batean baino gehiagotan ez egotea (justifikatuta edo ez), ikaslea amaierako ebaluazio-sisteman ebaluatuko da ohiko eta ezohiko deialdian.

Alderantzizko ikasgelako eta prozeduretako tailerreko testetan lortutako kalifikazioek 0 balioa izango dute, 4 baino nota txikiagoa lortuz gero.

Aurrez aurre (modu presentzialean) egindako ebaluazio-jarduerak bakarrik hartuko dira kontuan, nahiz eta on-line plataforman edo beste formatu batzuetan egiten diren..

(\*) Bigarren mailarainoko odol-ahaidetasunezko senideen gaixotasuna, gaixotasuna edo heriotza eta nahitaezko betebeharrak, baldin eta horiek ezin badira egin mintegiko ordutegitik kanpo edo ezinbesteko kausak direla medio.

### **EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEA**

Ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu duten eta azken ebaluazioko sistemaren bidez ebaluatuak izan nahi duten ikasleek idatziz adierazi beharko diote ikasgaiaren irakasle arduradunari ebaluazio jarraituari uko egiten diotela. Horretarako, 9 asteko epea izango dute ikasgaiaren hasieratik zenbatzen hasita, zentroko egutegi akademikoaren arabera, 2017ko martxoaren 13ko EHAAn argitaratutako ebaluazio-sistemaren 8.artikulan jasotakoari jarraikiz.

Azken azterketara aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du.

## **OHIKO DEIALDIA: AZKEN EBALUAZIOKO SISTEMA**

Kalifikatzeko tresnak eta ehunekoak:

- GARATZEKO IDATZIZKO PROBA (AZTERKETA) %75
- TALDEKO LANA %25

Ebaluazio jarraituaren sistemak eskakizun hauek bete beharko ditu:

- ATERKETAREN 3 ATALAK GAINDITZEA

**Proba idatziak** hiru zati edukiko ditu:

1. Lehen Mailako Arretako prozesu ohikoenen kasuak ebaztea. Balioa: %30.
2. Idatzizko proba galdera laburrekin edota test moduan LMAko arretari buruz. Balioa: %30. Testeko erantzun oker bakoitzak galderaren balioaren %25 deskontatuko du.
3. Idatzizko proba, galdera laburrekin eta/edo OH zatiaren testarekin. Balioa: %15. Testeko erantzun oker bakoitzak galderaren balioaren % 25 deskontatuko du

Azterketa gainditzeko, nahitaezkoa da 10 puntutik 5 edo gehiago ateratzea zati bakoitzean.

- TALDEKO LANA %25

Ebaluazioan, taldeko lan bat dago:

- Esku-hartze hezigarriaren grabazioa-analisisa-aurkezpena. Lan honetan, esku-hartze hezigarri bat egiteko eta aztertze gaitasuna ebaluatuko da. Balioa: %25.

Gaitasunen ebaluazioa jarduera hauen bidez egiten da:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1, G2 eta G3	IE1, IE2, IE3, IE4 eta IE7	Klase magistralak Kasuak ebaztea Tailerra/Mintegia:	Idatzizko azterketa: - Galdera laburrak / testa - Kasuak ebaztea	%75
G3	IE7, IE8 eta IE9	Esku-hartze hezigarria	Esku-hartze hezigarriaren grabazioa-analisisa-aurkezpena	%25

Ikasgai honetako gaitasunak gainditzeko, ebaluazio-jarduera guztiak modu independentean gainditu behar dira, 5 edo goragoko notarekin.

Ebaluazio-sistema honetan parte hartzeko, ikasle bakoitzak ebaluazio jarraituko sistemari uko egiten diola adierazteko idazki bat aurkeztuko dio ikasgaiaren irakasle arduradunari, 2022-2023 ikasturteko ikasgaiari dagokion seihilekoaren 9. astea baino lehen.

Azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

## **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKOA**

Ohiko deialdian zehaztutakoa ezohiko deialdian ere beteko da. Ohiko deialdian gainditu diren gaitasunen nota gordeko da, gida honetan hala zehazten bada.

Ezohiko deialdiaren azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

## **BI EBALUAZIO-SISTEMEI BURUZKO GOGOETA KOMUNAK**

Ez da ikasgaiaren notarik gordeko ondorengo ikasturte akademiko baterako.

## **DERRIGORREZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

Ez dago derrigorrez erabili beharreko materialik.

## **INFORMAZIO-ITURRIAK**

### **Oinarrizko bibliografia:**

- \* Martínez-Riera JR., Del Pino R.: *Manual práctico de Enfermería Comunitaria*, Elsevier, Bartzelona, 2020.
- \* Martín Zurro A., Jodar G. *Atención Familiar y Salud Comunitaria. Conceptos y materiales para docentes y estudiantes*, Elsevier España, 2018.
- \* Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia: *Osasunari ikuspegi komunitario batetik heltzeko gida metodologikoa*, Gasteiz, 2016.
- \* Martín Zurro A, Cano Pérez JF, Gené Badía J.: *Atención Primaria. Principios organización y métodos en medicina de familia*. Elsevier, 2019.
- \* Costa Cabanillas M., López Méndez E.: *Educación para la Salud: Guía práctica para promover estilos de vida saludables*. Edición Pirámide, Madril, 2008.
- \* NANDA International Diagnósticos Enfermeros. Definiciones y clasificación 2021-2023. Bartzelona: Elsevier; 2021.

### **Baliabide elektronikoak:**

- \* Osakidetza. <http://www.osakidetza.euskadi.net>
- \* Asociación de Enfermería Comunitaria: <https://enfermeriacomunitaria.org/web/>
- \* Programa de actividades comunitarias de Atención Primaria <https://www.pacap.net/>
- \* Sociedad Española de medicina de familia y comunitaria <https://www.semfyec.es/formacion-semfyec/>
- \* Euskadiko Familiako eta Komunitateko Erizaintzaren Zientzia Elkarte <https://efekeze.com/>
- \* Fistera <https://www.fistera.com/guias-clinicas/especialidad/>
- \* PAPPS <https://papps.es/>
- \* Salud Comunitaria basada en activos [https://www.easp.es/wp-content/uploads/dlm\\_uploads/2019/01/EASP\\_SaludComunitariaActivos-FUM-05-12-18.pdf](https://www.easp.es/wp-content/uploads/dlm_uploads/2019/01/EASP_SaludComunitariaActivos-FUM-05-12-18.pdf)
- \* Salud Comunitaria Asturias <https://saludcomunitaria.wordpress.com/category/observatorio-de-salud-en-asturias/>



## OHARRAK

UPV/EHUko Graduoko Batzordeak 2018ko maiatzaren 24an hartutako Erabakiaren arabera, ikasgai hau gainditu behar da 4. mailako Practicumetan matrikulatu ahal izateko.

Ikasturtearen hasieran, ikasgaiarekin lotutako dokumentazioa jarriko da ikasleen eskura eGelan.

## TUTORETZAK

Tutoretzak posta elektronikoz eskatuko dira, ikasgaiko irakasleei mezu bat idatzita. Tutoretzak ez dira eskola presentzialen absentiak ordezkatzeko.